

# Test 5. Gaia: Aire-Infiltrazioak erakinetan

1. Eraikin batetako aire-berritzea honela egin dezakegu:

- (A) Aireztapen natural edo mekanikoa erabiliz, airea nahita eraikin baten barruan sartzeko modu bakarra bait da.
- (B) Aireztapen mekanikoa erabiliz, modu bakarra baita sartzen den aire-emia kontrolatzeko.
- (C) Aire-infiltrazioz, aireztapen naturalez eta mekanikoz, nahita ala nahi gabe, modu kontrolatuan ala ez, denek balio dute eraikin batetako airea berritzeko.
- (D) Aire-infiltrazioz, nahi gabe gertatzen bait da.

2. Arrakaletan zeharreko aire-fluxua hurrengo parametroen menpekoa da:

- (A) Arrakalaren tamaina eta konfigurazioa.
- (B) Arrakalaren tamaina eta konfigurazioa, fluxua laminarra ala zurrunbilotsua den, eta arrakalan zeharreko presio diferentzia.
- (C) Arrakalan zeharreko presio diferentzia eta arrakalako tenperatura.
- (D) Arrakalaren tamaina eta konfigurazioa, fluxua laminarra ala zurrunbilotsua den, arrakalan zeharreko presio diferentzia, arrakalan zeharreko presio diferentzia eta arrakalako tenperatura.

3. Arrakala edo pitzadura batetan zeharreko presio diferentzia...

- (A) ... airearen tenperatura diferentziak, haizeak eta arrakalaren kokapenak sortua da.
- (B) ... airearen tenperatura diferentziak, haizeak eta aireztapen-sistema mekanikoek sortua da.
- (C) ... arrakalaren kokapenak, haizeak eta aireztapen-sistema mekanikoak sortua da.
- (D) ... arrakalaren kokapenak, airearen tenperatura diferentziak eta aireztapen-sistema mekanikoak sortua da.

4. Atea-haizagailuaren saiakuntza eta gas trazatzaileen saiakuntza:

- (A) Lehenengoak eraikinaren inguratzailearen estankotasuna neurtzeko balio du, eta bigarrenak leihoaren klasea neurtzeko.
- (B) Lehenengoak leihoaren klasea neurtzeko balio du, eta bigarrenak eraikinaren inguratzailearen estankotasuna neurtzeko.
- (C) Lehenengoak leihoaren klasea neurtzeko balio du, eta bigarrenak eraikinaren inguratzailean zehar infiltrazio-emia neurtzeko.
- (D) Lehenengoak eraikinaren inguratzailearen estankotasuna neurtzeko balio du, eta bigarrenak infiltrazioen emaria eraikinaren inguratzailean zehar neurtzeko.

**5.** ASHRAE metodoa erabiliz, lortu aire-infiltrazioengatik orduko aire-berritzeak, bi altuerako etxebizitza batean, batez beste 10 °C-ko kanpoko tenperatura dugunean eta 5,7 m/s-ko haizearen batez besteko abiadura izanik. Etxebizitzak 500 cm<sup>2</sup>-ko ihes-eremu eraginkorra eta 340 m<sup>3</sup>-ko bolumena ditu. Etxebizitzaren barruko tenperatura 20 °C da, eta haizearen aurrean III mailako babes du.

**(A)** 183,54 m<sup>3</sup>/h

**(B)** 0,54 1/h

**(C)** 0,46 1/h

**(D)** 0.29 1/h